

## IDEIA

---

LEZAN S.L. enpresaren eskutik APPENDENTZIA sortu zen. Zehazki, Izaro Bilbao, Ane Deahora eta Leire Marcelino, LEZAN S.L. enpresaren bazkideak, gara sortzaileak. Aipagarria da LEZAN izena gure izenetatik datorrela: LE (Leire)- ZA (Izaro)- (A)N (Ane). Gure proiektu edo ideiak, esan dugun moduan, APPENDENTZIA du izena. Baina, zertan datza?

APPENDENTZIA menpekotasuna dutenei eta haien familiei lagunduko dien aplikazio bat da. Helburutzat du menpekotasuna dutenei, neurri bateko independentzia izaten laguntzea, betiere, segurtasuna bermatuz bai pertsonarena bai haren familiarena. Horretarako, Gurutze Gorriaren laguntza jasoko du. Hau da, aplikazioaren jomuga haiei herriko lekuetara heltzen eta higitzen laguntzea da. "Google Maps"-en antzeko aplikazio bat da, baina askoz errazagoa eta hurbilagoa lekuak azkar indentifikatzen ahalbidetzen duena irudi elkarreragileak erabiliz, baita bakoitzak pertsonalizatutako emotikonoak ere.

Aplikazioaren funtzionamendua honako hau da: aplikazioa deskargatu ostean, konfiguratu behar da auzoko lekuak adieraziz: farmazia, okindegia, supermerkatua, eskola... Era oso dinamiko batean (letra handiekin, marrazkiekin...) aplikazioak menpekotasuna duena gidatuko du eta pertsona hori kapaza izango da bera bakarrik, esate baterako, auzoko okindegira joateko eta etxera bueltatzeko. Horrez gain, aplikazioak kamara bat du familiari pertsona hori edozein momentutan non dagoen jakitea ahalbidetuko diona. Are gehiago, lehen aipatu dugun moduan, Gurutze Gorriarekin harremanetan dago. Beraz, arazoren bat egongo balitz eta pertsonari zerbait gertatuko balitz, pertsona horrek laguntza jasoko luke era azkar eta erraz batean. Izan ere, menpekotasuna duenak botoi bat sakatu baino ez du egin behar edota familiak, kamarari esker gertatutako guztia ikusi duela, Gurutze Gorriari abisua eman.

Dena den, nondik sortu zen APPENDENTZIA? Aitortu behar dugu era oso berezian sortu zela. Hasiera batetik argi geneukan gure proiektuak helburu sozial bat bete behar zuela. Hala eta guztiz ere, hortik APPENDENTZIA sortzera inflexio-puntu bat egon zen. Ideia era bitxi batean sortua izan zen: igande arratsalde batean, Leirek bere lagun minaren amari galdera bat egin zionean: Itziar Blancori. Zergatik Itziar Blanco? Emakume honen bizitza ezagutuko bagenu, konturatuko ginatke ez dela batere erraza izan. Aitor izeneko seme bat du, sindrome ezezagun bati aurre egin behar dion bihotz-oneko mutil bat, eta haren menpe dago erabat. Egunez egun Aitorrekin bizitzeak dakarren lan guztiaren berri izanda, nahiz eta badakigun oso pozgarria eta probetxugarria izatera hel daitekeen, Leireren galdera funtsezkoa izan zen: "Zerk erraztuko lizuke Aitorrekin bizitzea?" Galdera horren aurrean, hitzez hitz aipatuko dugu bere erantzuna: "Si soy sincera, me gustaría conseguir que Aitor tuviese más independencia. Necesitaría algo que permitiese que Aitor pueda ir a la panadería del barrio, comprar el pan y volver a casa. Eso sí, siempre garantizando su seguridad para que yo pueda estar tranquila". ("Zintzoa banaiz, Aitorrek independentzia handiagoa izatea lortu nahiko nuke. Aitor auzoko okindegira joan, ogia erosi eta etxera itzultzea ahalbidetuko lukeen zerbait beharko nuke. Hori bai, beti segurtasuna bermatuta, ni lasai egoteko")

Hori da justu bilatzen ari ginen ideia! Eta, egia esanez, "brainstorming" ezagunak oso gutxi irautzen. Izan ere, Leire institutura heldu bezain laster, bere kideei ideia azaldu zien eta bai Izarori bai Aneri pilo bat gustatu zitzaion.



**APPEDENTZIA**

Itziar Blancoren ideiaz gain, tabakoa biriketara iristea eragotziko zuen aparatu bat aurrera eramatea baino ez zitzaigun bururatu. Hala ere, azken ideia hori ez zitzaigun oso bideragarria iruditu, helburua ez baita tabakoa biriketara ez iristea, baizik eta erretzea saihestea. Batez ere, gure planeta kutsatzen duen eta gure osasuna larriki kaltetzen duen jarduera delako. Beraz, gure lagun baten amak proposatutako proiektura bideratu ginen.

Aplikazio bat sortzea hoberena izan zitekeela bururatu zitzaigun, gure gizartean duten gorakadagatik. Denok dakigun bezala, gailu elektronikoak nagusi diren gizarte batean bizi gara, non sare sozialak, aplikazioak eta komunikazioa funtsezkoak diren eta, askotan, ia ezinbestekoak. Benetan imajinatzen dugu gure bizitza komunikazio-sarerik (hala nola, Internet, Instagram...), telefono mugikorrik eta gailu elektronikorik gabe? Gure eguneroko bizitzaren parte dira. Horregatik, ideia are hobea iruditu zitzaigun: menpekotasuna duten pertsonen beharrak asetzen dituen aplikazio bat. Behin ideia finkatuta, garatu besterik ez genuen egin behar.

Hasteko, denborarekin APPEDENTZIA bilakatuko zenaren ideia ezarri genuen. Google Maps-ri erreparatu genion eta aplikazio hori oinarritzat hartuta, gainerakoa bakarrik etorri zen. Hots, dokumentu honen hasieran azaldu dugun funtzionamendua bururatu zitzaigun. Hurrengo pausua izena pentsatzea zen, eta, ikus dezakezuen bezala, APPEDENTZIA APP eta DEPENDENTZIA hitzek osatutako hitza da. Bi hitz horiek elkartu egin genituen, eta emaitza APPEDENTZIA izan zen. Hortik aurrera, ideia lantzea, zehaztea eta ahalik eta gehien ahalegintzea besterik ez zitzaigun geratu.

**LEZAN S.L.**

Zure segurtasuna, zure etorkizuna